



**“Amazon salmenta itzelak egiten ari da; bitartean, guk itxita dugu denda. Lotsagarria da”**

Gaizka Olabarria  
Hitz liburu-denda • 13

**“Betiko bezeroen tratuari eusten diogu; badugu fideltasun hori”**

**Abadiño** | Baserritarrak hainbat herritako merkatu plaza barik gelditu dira. Otsein baserriko Gema Agirre eta Illart Bazeta, esaterako. • 8



# Kimu berrien zain

Covid-19aren ondorioz ezarritako alarma egoerak gogor kolpatu du kultur gintza ere. Plateruenaren kasuan, programazioan ez ezik jatetxean eta tabernan ere eragin die. Martxorako eta apirilera antolatuta zituzten ekitaldiak bertan behera utzi behar izan dituzte; krisialdi ostean ikusleak aretoetara eta kultur ekitaldietara joango direlakoan, lanera itzultzeko gogotsu daudela azaldu dio ANBOTOr i haintza Orbegozo kultur programatzaileak. • 9



**“Isolamenduan umorea egitea izan da niretzat garrantzitsuen”**

**Elorrio** | Felix Gallastegui elorriarrak koronabirusa gainditzea lortu du. Martxoaren 4an, Galdakaoko ospitalean zegoela, Covid-19 birusa antzeman zioten. Martxoaren 17an alta hartu zuen, baina beste hamabost egun igaro ditu etxean, logelan isolatuta. Martitzenean jaso zuen hainbeste itxaroten zebilen berria: birusa atzean uztea lortu du. • 3



# "Langileon artean testak egitea lehentasunezkoa da, kutsatutakoak alboratu eta gainerakoek egoiliarak hobeto babesteko"

Adinekoen zentroetako langileek neurri gehiago eskatzen dituzte egoiliarak ahalik eta egokien tratatzeko; besteak beste, testa egitea eskatzen dute

**DURANGALDEA • ARITZ MALDONADO**

Adinekoena gizatalderik zaugarrienetariko bat da Covid 19ak eragindako krisialdi honetan. Gaixotasuna haien zainketa, eta horrek zaildu egiten du egoera. Horren adibide, zahar etxeak dira. Babes neurriak hartu diren arren, sindikatuek neurri berriak eskatu dituzte. Bizkaiko Foru Aldundiaren esanetan, 155 egoitza daude Bizkaian (guztira, 10.748 plaza), eta 86 dira "positibo baieztatuta" duten erabiltzaileak; fokuak 28 zentrotan daude identifikatuta. Alaine Fernandezek Busturiako zahar etxe batean lan egiten du, baina Durangon bizi da. Egoitzak 80 bat plaza ditu eta ia guztiak beteta daude. Egoitza askotan lez, egoiliarak bakartuta daude, ez kutsatzeko. "Gelan igarotzen dute egun osoa, bakarrik; otorduak ere bertan egiten dituzte", adierazi du Fernandezek. Egoiliarren animoan ez ezik, egoera horrek langileen artean ere badu eragina. "Egoera honek lan karga handiagoa dakar langi-



Adineko pertsonentzako egoitzetariko bat, Durangokoa.

leontzat; jende gehiago kontratatu dute, baina ez da nahikoa", esan du.

## Egoiliarak "triste"

Fernandezen berbetan, egoiliarak ahalik eta erosoan egotea da euren lanaren helburua, are gehiago

**Aldundiaren esanetan, egoitzetako 86 erabiltzailek dute "positibo baieztatuta"**

egungo testuinguruan. "Gure esku dagoen guztia egiten dugu haiek animatzeko. Egoiliarak triste daude, ezin dutelako familiakoekin bisitarik jaso, eta eurak animatzen ahalegintzen gara", azaldu du Fernandezek. Eurekin jostatzen dira,

eta egunkaria ere irakurtzen diete, ahal duten heinean. "Hala ere, ez gara heltzen guk gura genukeen mailako zerbitzura", esan du.

## Testak, lehentasunezko

Fernandez gaixotasunaren sintomak igartzen hasi zen eta berrogeialdian dago. Beste dozena bat langile bere egoera beretsuan daudela esan du: "Langileon artean testak egitea lehentasunezkoa dela uste dugu, langile kutsatuak identifikatzea oso lagungarria delako. Horrela, langile kutsatuak alboratu, eta gainerakoek hobeto babestu ditzakete egoiliarak. Baina, horretarako, langileetarako nor dagoen kutsatuta eta nor ez jakin behar dugu", gaineratu du. Azken asteetan enpresak EPI sorta bat jaso du, eta baldintza hobetan egin dezakete lan orain. "Maskarillak birziklatzen ibili behar izan dugu, adibidez. Hiru-lau egunean segidan erabili behar izan ditugu, gehiagorik ez genuelako", esan du. Testaren erantzuna itxaron bitartean, baikor dago Fernandez.

# "Albiste ona da funtsezkoak ez diren jarduerak etetea, neurria berandu etorri bada ere"

ELA eta LAB sindikatuek begi onez hartu dute neurria; Jaurlaritza negoziatzen ari da enpresa gehiago zabaltzeko



Aludium enpresa. Artxiboko irudia.

**DURANGALDEA • A.M.**

Astelehenera, "funtsezkoa ez zen jarduerak" oro gelditzeko agindu zuen Espainiako Gobernuak, dekretu bidez. Eusko Jaurlaritzak eta Confedebak desadosta-

suna agertu arren, astelehenean laisatasuna zen nagusi Durangaldeko lantegi eremuetan. ELA eta LABek atseginez hartu zuten erabakia, "berandu heldu arren". "Osasun publikoa lehenesten eta normalta-

suna berreskuratzen lagunduko duen neurria" da ELA-ren berbetan.

## Langileen segurtasuna

Sindikatu biek gogor egin dute Eusko Jaurlaritzaren eta Confe-

basken aurka, "arduragabekeria eta interes ekonomikoak lehentzi" dituztelako. Izan ere, sindikatu abertzale nagusi bien ustez, kutsatzeko foku nagusietariko bat bilakatzen ari ziren lantoko-

kiak. Itxita egon arren, Durangaldeko enpresa ugari ERTEak eskatu dituzte, edo eskatzeko asmoa agertu zuten. Esate baterako, Bruss, Cie Inyecta eta Gestamp enpresetan, LAB sindikatuaren esanetan. Gainera, LABek eta ELAk adierazi dute adi egongo direla, izan ere, Espainiako Gobernuak

**Besteak beste, Cemosa, Smurfit edo Aludium enpresek gutxieneko jarduerari eusten diote**

enpresa batzuei berriro baimena eman die lanean hasteko. Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritza hori negoziatzen ari da dekretua ezarri zenetik.

## Enpresak zabalik

Gutxieneko jarduerari eusten dioten hainbat enpresa ere badaude Durangaldean; besteak beste, Cemosa, Smurfit eta Aludium. Zornotzako Aludium enpresan langileak beharrera joatera derrigortu gura dituztela salatu du LABek. Besteak beste, produktu farmazeutikoetarako materiala ekoizten dute bertan. LABek dioenez, baina, "hori produkzio osoaren %10 inguru besterik ez da".

# “Isolamenduan, neure buruagaz umorea egitea izan da garrantzitsuena”

Martxoaren 4an koronabirusa antzeman zioten Fermin Gallastegui. Martitzenean, sendatuta zegoela esan zioten

ELORRIO • IGOR GALARZA

Lortu du. Fermin Gallastegui elorriarrak gaititu du koronabirusa. Covid-19a antzeman ziotenetik, aste bi inguru egin zituen Galdekaoko ospitalean. Beste gaixotasun batzuentatik zegoen han, eta bertan kutsatu zen. Koronabirusagatik ingresaturiko lehenengoetarikoa izan zen. Etxean beste aste bi iragan ditu, isolamenduan, baina martitzenean, hilabete baino gehiagoan itxaroten zebilen albistea jaso zuen: negatibo eman zuen koronabirusaren azterketan.

**Zelan igaro duzu hau guztia?**

Hasieran ez nuen sinesten, gaixotasun bat besteagaz batu zitzaidan. Zortez, pazientzia duen pertsona naiz, eta hau guztia jasangarriagoa egitea lortu dut. Ahultasun uneak ere izan ditut, jakina, baina momentu horietan nire buruagaz eta egoeragaz barre egitea lortu dut. Egun hauetan umoreak lagundu dit, garrantzitsua izan da niretzat. **Koronabirusa zenuela, infernua gainera etorriko zitzaizula pentsatu zenuen?**


Infernu edo egoera arraroa zen. Nik bizi izan dudanagatik, hasieran medikuek itxaroten ez zuten zerbaite izan zen. Eta ez dakit pneumonia edo antzeko gaixotasuna duen pazienteagaz zer protokolo duten ospitaleetan. Horrelakorik ez badago, gaur egun dugun egoeragaz, sortzea gomendatuko nieke Osasun Sailekoei. Izan ere, nire familiak eta nik, eta gelakidearen senideekin hasitakoa... batek daki zelan

jarraitu zezakeen horrek. Birusak izan zezakeen hedaturagaitik diot. **Zelan jaso zenuen berria?**

Lotara joan eta biharamunean, esnatu nintzenean, gure atea itxita zegoen. Argi gorri bat zegoen. Orduan jakin nuen gelakidea hil egin zela. Urduritasuna igarri nuen,

“**Hasieran ez nion barkamena onartu medikuari, kutsatzea ekidin zitekeela uste nuelako**”

eta zer gertatzen ari zen galdetzen nien medikuei. Arratsalde aldera, gelakideak koronabirusa zuela esan zidaten, eta probak egin behar zizkidatela. Gauean izan zen, hamabi ordu isolatuta egon aurretik, erizainekin berba egingo nuen azken aldia. Hurrengo goizean ez zidaten ohea egin, inork ere ez ninduen artatu... eta tinbrea jo nuen erizain batek burua besterik ez zuen sartu logelan. Aurreko guztia azaldu nion, eta ezin ninduela artatu esan zidan, lan asko zeukala. Geroago eta sarriago hasi nintzen tinbrea jotzen, geroago eta urdu-riago. Orduan, medikua etorri zen. Covid-19 proban positibo eman nuela esan zidan. Hasieran ez nion barkamena onartu medikuari, kutsatzea ekidin zitekeela uste nuelako. Larrialdietako protokoloak ea zertan huts egin zuen galdetu nion.



**Fermin Gallastegui Urien**  
Koronabirusa gaititu du  
Elorrio | 1964

**Protokolo berari jarraitu diote uneoro?**

Lehenengo hiru egunetan ez zuten beste munduko segurtasun jantzirik, ezta protokolo zorrotzik ere. Solairuz aldatu nindutenean, oster, tratua aldatu egin zen. Logelara sartzen ziren, eta behar diren moduko protokoloak zeuzkaten. Ohiko aldaketak eta eginbeharrak egiten zituzten.

**Orokorrean, tratua behar den modukoa izan zen?**

Kutsatu eta hamahiru egunera hartu nuen alta. Tratua ona izan zen. Hasieran barkamena onartu ez nion medikuari bostekoa ere eman nion. Orduko protokoloa eta oraingoa ez da berbera izango, seguru asko.

**Etxeok zain egongo ziren etxean.**

“**Negatibo eman nuela jakitean, familiari besarkada eman eta ogia erostera irten nuen**”

Ettxera heldu nintzenean ere ezin izan nituen etxeok besarkatu. Anbulantziatik etxera, eta logelara segituan. Behin etxean, hamabost egun egin ditut isolatuta. Etxeok ate ondoan uzten zidaten janaria, eta dutxatu behar nintzenean, komuna osorik desinfektatu behar izaten nuen.

**Sendatu zinela jakin zenuenean, zer gauza egin zenuen lehenengo?**

Ba, negatibo eman nuela jakitean, familiari besarkada beroa eman nion, eta ogia erostera irten nuen (barrez). Hori bai, sekulako mina nuen giharretan. Semea atzetik zetorren, badaezbada, zorabiatzen banintzen-edo.

**Umoreaz gainera, badago norbera lasaitzeko beste modurik?**

Gaixoaren eta mediku zein erizainen artean erlazio estua sortuz gero, gaixoarentzat errazagoa da aurrera egitea, leunagoa izango da. Nire kasuan behintzat, hala izan zen. Hainbat langileguz tratua edukitzea lortu nuen, eta sekulako lana egiten ari dira. Animo handia bidali gura diet gaixo dauden guztiei. Eta baita gaixoak laguntzen dabiltzan erizain eta mediku guztiei ere.

CERAMICAS  
**MACOBER**

ZERAMIKA ETA GRESA  
DEKORAZIOA ETA APAINKETA  
ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m<sup>2</sup> BILTEGI - 800 m<sup>2</sup> ERAKUSKETA *Etortri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 [www.macober.com](http://www.macober.com)

**hitz** artekalea 23, durango  
946 810 776  
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1<sup>o</sup> MIÑAN  
Amets Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)

2<sup>o</sup> AITAREN ETXEA  
Karmele Jaio (Elkar)

3<sup>o</sup> JOSEBA SARRIONANDIA  
AIREA EZ DA DEBALDE  
Joseba Sarrionandia (Pamiela)

# Astelehenaz geroztik koronabirusaren sintomak dituzten herritarrek ohiko osasun etxeetara deitu behar dute

Sintomaren bat duenak bere anbulatoriora deitu beharko du, eta, bertan beharrezko ikusten badute, erreferentziako osasun etxera bideratuko dute gaixoa



Herritar bakoitzak dagokion anbulatoriora deitu beharko du.

**DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR**  
Joan zen astean, Osasun Sailak AN-BOTOrri jakinarazi zion Durangoko anbulatorio zaharrean "arnas patologiak" dituzten herritarrek hartzen hasiko zirela eta Zornotzako anbulatorioan arnas patologientzako zirkuitu bat ipiniko zutela. As-

teon, ostera, Nekane Murga Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak prentsaurreko bidez adierazi du, aurrerantzean koronabirusaren sintomak dituzten pertsonak ohiko osasun etxeetara deitu beharko dutela. "Koronabirusak eragindako egoerari hobeto erantzuteko,

osasun etxeak berrantolatu ditugu", esan zuen Murgak. Hori horrela, sintomak dituzten herritarrek osasun txartelaren atzealdean agertzen den telefono zenbakira deitu beharko dute orain. Behin bertara deituta, eta osasun etxeetan beharrezkoa dela ikusiz gero,

sintomak dituzten gaixoak erreferentziako osasun etxeetara bideratuko dituztela azaldu zuen osasun sailburuak.

**Udaletatik esker on mezuak**  
Durangaldeko hainbat udaletatik herritarrei eskerrak eman dizkiete izaten ari diren jarrerarengatik, eta horrela jarraitzeko eskatu diete.

**Eskualdeko udaletatik herritarrei eskerrak eman dizkiete izaten ari diren jarrerarengatik**

baino gehiagok eman dute izena Durangon. Eta horregaz erakusten dugu Durangon elkartasun komunitate bat osatzen dugula. Beraz, mila esker".

Bestalde, Zornotzako Udalak 'Maskara 19' kanpainagaz bat egin du azken egunotan. Hori horrela, indarkeria matxista sufritzen duten emakumeei herriko farmaziara joan eta 'Maskara 19'-a eskatzeko dei egin diete.

**Itxialdia eramangarriagoa**

Konfinamendua eramangarriagoa izan dadin, eskualdeko udalek hainbat ekintza antolatu dituzte herritarrentzat. Durangon, Elorri eta Abadiñon, esaterako, zenbait aplikazio sortu eta instagramen kontuak zabaldu dituzte, jendeak etxean kirola egiten jarraitzeko. Durangoko Trainingym aplikazioak, esaterako, 350 kirol ariketa egiteko aukera eskaintzen du. Durangon, gainera, museoko aretoak modu birtualean bisitatzeko aukera ere ipini dute martxan.

"Jarrera miresgarria duzue, eta hori eskertzekoa da. Horrela jarraituz gero, guztion artean aurre egingo diogu honi", adierazi dute Berrizko Udaleko kideek. Ima Garrastatxu Durangoko alkateak ere durangarren elkartasun adierazpenak gogora ekarri gura izan ditu: "Laguntza Sarearen bitartez, 300 lagunek


**"Joera aldaketa baten zantzuak" dauden arren, "kontuz" jokatzeko beharra azpimarratu dute**

**DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA**

Osasun Sailak Covid-19 birusa hautemateko testak areagotu egin zituen martxoaren azken egunetan, eta horrek eragina utzi du datuetan. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 17.000 test baino gehiago egin dira eta horrek baldintzatu egin ditu estatistikak. Durangaldeko datuak grafiko batera eramanda igarri daiteke eragin hori. Herritarrek konfinamendu egoeran egon arren eta kontaktua nabarmen gutxitu arren, martxoaren 25etik aurrera

kasu gehiago baieztatu dira testen eraginez. Edizio hau ixterako, egueneko datuak argitaratu barik zeuden. Eguaztenean, 165 ziren kutsatutako lagunak Durangaldean. Dena dela, ez da kopuru zehatza inondik ere. Izan ere, testak ez zaizkie sintomak dituzten edo asintomatikoak diren guztiei egiten. Edozelan ere, Osasun Sailak dio "joera aldaketa baten zantzuak" daudela. Ospitaleratze berrien kopuruak behera egin duela dio, baina "kontuz" jokatzeko beharra dagoela azpimarratu du.

## Durangaldea



■ Covid-19 birusak kutsatutako kasu baieztatuak Durangaldean.

**anboto**

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2020ko apirilaren 3a  
18. urtea - 801. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.  
**Erredakzio burua:** Ekaitz Herrera Azkarraga  
**Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo Txabari.  
**Publizitatea:** Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala, Igor Galarza Intxausti.  
**Maketazioa:** Bea Sierrasumaga Guezuraga, Nerea Azpiazu Beaskoetxea eta Ainhoa Iraola Mazorriaga.  
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

LAGUNTZAILEAK

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



## IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

**ZARATE**  **ELEXPE**  
E R A G I L E A K

Tel.: 946 816 673  
[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)

# “Koronabirusagaz loturarik ez duten larrialdiei ere erantzun behar diegu eta babestu beharrean gaude inor ez kutsatzeko”

Era guztietako beste abisu eta osasun larrialdiei ere erantzun behar diete anbulantzietan, eta beharginek ezinbestekoa dute babes neurriak hartzea



**Ivan Rodriguez Holguin**  
Osasun larrialdietako teknikaria

Abadiño | 1994



Ivan Rodriguez eskularruak eta maskarillak batzen dabil egun hauetan, ospitaleetan, anbulatorioetan, zahar-egoitzetan eta abarretan banatzeko.

## ABADIÑO • AITZIBER BASAURI

**Ivan Rodriguezek larrialdietako anbulantzian lan egiten du. Koronabirusaren krisiak eraginda, zalantza eta bakardade egoera bizi duela onartu du. Hamabi orduko lanaldiak egiten ditu anbulantzian, eta orain egokitu zaizkion atsedenerako hamabost egunetan ere lan egingo du, anbulantzian beharrezana badago.**

**Larrialdi egoera ezarri zenetik Elorrion bizi zara, bakarrik. Abadiñon bizi da zure familia. Zerk eraman zintuen erabaki hori hartzera?**

Kontaktu zuzena dugu koronabirusagaz. Lehenengo lerroan gabilta lanean, eta ez digute testik egiten birusa dugun jakietako. Gertatu daiteke Covid-19a izatea eta inolako sintomarik ez edukitzea, birusa zuzen izan arren. Egoera horren aurrean, aitari esan nion egun hauetan etxera ez joatea zela onena. Amama Galizian bizi da eta etxe bat du Elorrion. Hantxe bizi naiz osasun larrialdi egoera hasi zenetik.

**Zelan daramazu egoera hau?**

Lanordua amaituta, ahal dudan neurrian etxekoekin berba egiten dut. Daramadan zama psikologikoa arintzeko modua da. Gurasoekin eta anaiaz berba egitea askapena da niretzat. Orain, familia eta bikoteki-

dea ez ditut ikusten, eta bakardadea handia da. Sare sozialen bitartez komunikatzen gara, bideo deiak egin da, baina aurrez-aurrekoaren falta igartzen dut, eguna amaitutakoan solasaldi bat izatearen falta.

**Anbulantzia batean lan eginda, handia da koronabirusa hartzeko arriskua. Baduzue modurik horri aurre egiteko?**

Logistikako lankideek eginahalak egiten dituzte gu materialez hornitzeko. Oraingoz baditugu babesteko baliabideak. Horregaz ez dut esan gura anbulantzia guztietan baliabideak dituztenik. Norbere

“**Oraingoz baditugu babesteko baliabideak. Horregaz ez dut esan gura anbulantzia guztietan dituztenik**”

babes ekipamenduaren barruan, paperezko lan-jantzia eta oinetako babesak ditugu, eta iragazki berezidun maskarillak (FFP2). Azken horiek birziklatu egiten ditugu, enpresa hornitzaileak ez duelako nahikoa stock eskariari erantzuteko.

Hortxe apurtzen da katea. Garraiolariak ere dena emanda ari dira, eta ahal duten heinean banatzen dute. Berrerabiltzen dugunetik aparte, beste materialen bat ere erabiltzen dugu, zeozelan moldatzeko. Esate baterako, oinetako-babesak agortu egin dira eta zabor poltsak erabiltzen ditugu.

**Babes materiala biltzeko ekimena hasi duzu sare sozialen bitartez. Horretan murgilduta zabilta orain.**

Bai. Itxi beharra izan duten enpreetan, langileentzat erositako hainbat maskarilla eta eskularru dituzte erabili barik. Horiek batzen nabil, ospitaleetan, anbulatorioetan, zahar-egoitzetan eta abarretan banatzeko. Material asko dago aurretik erosi dena eta orain erabiltzen ez dena.

**Esan duzu ez dizuetela probarik egin koronabirusa duzuen jakiteko. Zalantza handia sortuko dizu horrek.**

Bai. Orain hamabost egun ditut libre hartzeko, eta ezin naiz etxera joan, ez dakidalako koronabirusa dudana ala ez. Testak egitea beharrezkoa da. Ditugun abisu guztietara maskarillagaz jotzen gara, inor ez kutsatzeko. Gure gain hartu dugu ardua hori, prebentzio neurri modura. Izan ere, baliteke hanka apurtu duen norbaiten etxera joan behar izatea eta aurretik koronabirusa duen nor-

baitegaz egon izana. Arriskua hortxe dago beti, babesteko ekipamendua jantzi dugun arren.

**Zuen burua eta gaixoarena ere babestu beharrean zaudete.**

Bai. Koronabirusaren larritasun maila Covid-19aren birus-kargagaz dago lotuta. Birusagaz zenbat eta kontaktu gehiago izan, orduan eta indartsuagoa bihurtzen da. Koronabirusagaz loturarik ez duten abisu eta osasun larrialdiei ere erantzun behar diegu eta gu babestu beharrean gaude inor ez kutsatzeko. Koronabirusa duen gaixoarengana joan behar dugunean, esan egiten

“**Gaixoak zer duen argi esatea oso lagungarria zaigu, prebentzio neurriak hartu ahal izateko**”

digute, babeserako ekipamendua ipini dezagun. Baina iktusa izan duen batengana bagoaz, hasieran behintzat ez dugu jantzi behar. Gertatu daiteke gero jakitea gaixoak egun batzuk sukarragaz eman dituela. Horrelakoetan, Covi-19aren

aurrean ahultasun egoeran zaude, jakin barik. Horixe da arriskutsuena. Gaixoak zer duen argi esatea oso lagungarria zaigu neurriak hartu ahal izateko, eta denontzat da onuragarria. Ez gara kutsatuko, laguntzen jarraitzeko aukera izango dugu eta ez dugu birusa beste inora zabalduko. Material falta kontuan hartuta, abisu guztietara babes ekipamenduagaz joatea materiala alferrik galtzea litzateke.

**Koronabirusaren eraginez, asko handitu da larrialdi abisuen kopurua?**

Bizkaiari bikoiztu egin dira. Egunean 1.000tik 1.200 abisura egon ohi dira, eta orain 2.400-2.800 abisuren bueltan gaude. Gehienak koronabirusagaz lotutakoak. Prebentzio fasean egon gara eta hartutako neurrien emaitzak ikusten hasiko gara orain. Kutsatze kurbarren gailurrera helduko gara laster. Egoerak gainezka egingo duen beldur gara, ikusita zelaz gabiltzan prebentzio fasean.

**Funtsezkoak ez diren jarduerak eten dira asteon. Ondo ikusten duzu?**

Hasieratik egin behar zen. Eragin ekonomiko, sozial eta sanitarioa samurragoa izango zen. Bilbon jende asko ikusi dut kalean, larregi, lanera joatera behartuta. Mugimendu horrek birusa indartu du.

# 'durango1936.org' webgune berrituak 110 elkarrizketatik gora batu ditu memoria historikoa berreskuratzeko

Durango eta Elorrioko martxoaren 31ko bonbardaketen harira, Durango 1936 kultur elkarteak bere webgune berritua aurkeztu du

## DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Memoria historikoa berreskuratzeko helburu hartuta, Durango 1936 Kultur Elkarteak lan sakona egiten du testigantzak biltzen. Elkarteak urteak daramatza gerraren inguruko lekukotzak grabatzen. Guztira, 110 bat lagun elkarrizketatu dituzte. Memoriaren altxori hori webgune batean jaso dute, informazio hori guztia interesa duen edozein herritarren eskura egon dadin. Elkarrizketak gaika landuta eta dokumentazio guztiagaz jaso dituzte *durango1936.org* webgune berrituan.

## M31 konfinamendutik

Koronabirusaren krisiak egitarau guztiak hankazgora ipini ditu, baita Martxoaren 31ren harira Durango eta Elorrioko antolatzeak zirenak ere. Konfinamendutik presaturiko ekimen irudimentsuek aurtengo urteurrenako ezohiko egitaraua borobildu dute. Kriskitin Dantza Taldekoek, esate baterako,



Bego Oleaga elkarrizketatuaren argazkia. 'durango1936.org' webgunean bere adierazpenak entzungai daude.

Agurra dantzatzuz gogoratu dituzte Durango bonbardaketan hildakoak. Bideo batean bateratu dituzte nork bere etxean egindako dantza saioak. Durango Udaleko *youtube* kanalean argitaratu dute bideoa. Martitzen goizean, udaleko eta hainbat elkartetako ordezkariak irakurritako adierazpenaren bideoa egin zuten publiko gune berean. Honako elkarte eta erakundeetako ordezkariak ageri dira bideo horretan: Durango Udalak, Gerediaga Elkarteak, Kriskitin Dantza Taldea, Durango 1936 Kultur Elkarteak, Aranzadi Elkarteak, Ongi Etorri Errefuxiatuak, Suargi Elkarteak eta Karrika Antzerki Taldea. Testua Unai Iturriagak idatzi du. Goizean ere, bonbardaketako biktimen oroimenezko sua piztu zuten Andra Mariko elizpean. 19:00ak arte egon zen piztuta. Bestalde, ekimen herritar legez, hainbat durangarrek sirena hotsa ipini zuten balkoian.

**AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK**

**2021**  
Amorebieta-Etxano  
auzolanean

**Amorebieta-Etxano auzolanean**

Amorebieta-Etxanoko Aurrekontu parte-hartzailea prozesu irekia da eta honen bidez herritarrek udal aurrekontuaren zati bat zertan erabili proposatu ahal dabe.

**AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK**

**amorebieta etxano**  
UDALA  
www.amorebieta-etxano.eus

# “WhatsApp bidez antolatuta ari gara ortuariak bezeroei helarazten”

Herrietako merkatu plazak martxan ez daudenez, Abadiñoako Otsein baserriko kideak betiko bezeroei, supermerkatuei eta dendei kasu eginda ari dira ortuariak saltzen; bizi dugun egoeragaz, zailtasunak dituzte ohiko puntuetan saltzeko



Gema Agirre eta Illart Bazeta semea baserriko produktuak saltzetik bizi dira.

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Baserritar askoren egoera paradokikoa da: baimenduta dagoen lan bakarrenetarikoa izan arren, askok zailtasunak dituzte ortuariak ohiko puntuetan saltzeko. Durangaldeko

herrietan egin ohi diren merkatu plazak bertan behera gelditu dira, salmentarako toki bat galdu dute eta horren aurrean beste bide batzuk indartu behar izan dituzte. Lan egitea eta herritarrak elikagaiz

hornitzea dute erronka. Abadiñoako Otsein baserriko kideak dira egoera horren adibide, sasoi bateko Patremoso baserriko kideak. Gema Agirrek (Abadiño, 1961) erantzun die galderei.

**Zelakoak izaten ari dira egun hauek baserritarrentzat?**

Egunean egunekoa bizitzen gabiltza, gerokoari larregi begiratu barik. Betiko bezeroen tratuari eusten diogu; badugu fideltasun hori. WhatsApp bidezko mezuen bitartez komunikatzen gara herritar

“**Egunean egunekoa bizitzen gabiltza, gerokoari larregi begiratu barik. Betiko bezeroen tratuari eusten diogu**”

batzuekin. Zein jenero gura duten adierazita, eskariak zein tokitan utzi ditzakegun adostuta,... horrela ari gara WhatsApp bidez. Urte osoan erosleak diren herritarrak arduratuta daude. Badute interesa. Bestalde, zenbait supermerkatu eta elikagai denda ere hornitzen ditugu.

**Merkatu plazak bertan behera gelditu dira herri askotan.**

Gu Durangoko eta Traña-Matienako (Abadiño) plazetara joan izan gara beti. Konfinamendua ezarri bezperan, barikuan, jenero guztia prest genuen hurrengo egunean Durangoko merkatura saltzera eramateko. 21:00 aldera, baina, udaletik deitu ziguten merkatu plaza bertan behera geratuko zela esateko. Esan ziguten merkaturaren jarduera behin-behinean eten zutela, segurtasun arrazoiengaitik eta kutsatzeak ekiditeko. Gogorra da egoera, baina ulergarria ere bai. Errespetua behar da. Azken finean, guk ere ez dugu gaixotu gura. Asteburu hartan prestatutako jeneroa inguruko denda eta supermerkatuetan banatu genuen.

**Baserriko produktuak bakarrik saltzetik bizi zarete?**

Bai. Ez dugu bestelako diru sarrearik. 1981etik ari gara honetan lanean. Familiako hiru kide gabiltza: senarra, semea eta ni. Orain, neguko produktuen hondarrekin ari gara: zerbak, espinakak, azaloren bat,... egun batzuk barru ilarrekin eta tipulinekin hasiko gara.

**Zer esango zenieke herritarrei?**

Amesgaiztoetan ere ezin zitekeen imajinatu denok bizitzen ari garen egoera hau. Animoak eman gura dizkiot jendeari. Hau pasatuko da.

## Oraindik ez dituzu Anbotoko albisteak whatsapppe jasotzen?

### Batu Anbotoko Whatsapp-era



Bidali ALTA

688 635 041

telefono zenbakira



**anboto**



# “Ez dakigu ez noiz ez zein baldintzatan itzuliko garen, ezta jendearen erantzuna zein izango den ere”

Kulturgintzan ere kolpe garrantzitsua suposatu du koronabirusaren ondorioz ezarritako osasun alarma egoerak; kolpea ekonomikoa ez ezik morala ere izan dela aitortu du Ihintza Orbegozo Plateruenako kultur programatzaileak

DURANGO • ARITZ MALDONADO

Tabernako eta jatetxeko ohiko zerbitzuez gainera, Covid 19ak martxo osoko ekitaldi guztiak zapuztu dizkio Durangoko Plateruena kultur guneari. Ekitaldiz lepo egon behar zuen gainera. Besteak beste, bertan behera geratu dira edo atzeratu egin behar izan dira Joseba B. Lenoir eta Bigott taldeen kontzertuak, Eurokopa 2020 txapelketaren aurkako 'Etxean jokatzeko dugulako' jaialdia, eta Boluda kabareta.

Egun batetik bestera, programaturiko ekitaldi guztiak bertan behera utzi behar izan zenituzten. Zelan bizi izan zenuten alarma egoeraren hasiera?

Nahiko momentu kaotikoa izan zen, egia esan. Eguenean, eskolak ixtearen agindua ematean, alarma zabaltzen hasi zen, eta hainbat herritako kultur ekitaldi asko eta asko bertan behera gelditzen hasi ziren. Guk, agindu ofizialik ez zegoenean, hasieran zelan jokatu ez genekiela egon ginen, baina hotzean pentsatu, eta egokiena guk ere ekitaldiak bertan behera uztea (ahal dela atzeratzea) erabaki genuen, antolatzaile eta taldeekin berba eginda, jakina. Momentuan erabakia oso gogorra egin zitzaigun, baina, egia esan, pisu handia kendu genuen gainetik, onena zena egiten ari ginela uste genuen eta. Eta orain ere, hala uste dut.

**Hasierako noraez egoeratik, eta orain perspektiba apur bat gehiagoz, zelan eragin dio Plateruenari egoera honek? Eta aurrera begira, zelan eragingo dio epe motz-ertainera?**

Galera jada izugarria da, eta errekuperatzea ez da erraza izango, ez ekonomikoki eta ezta moraliki ere. Sortzaileek inbertsioak egiten dituzte euren lanak argi-



Ihintza Orbegozo  
Igartua  
Plateruenako kultur  
programatzailea  
Bergara | 1987

taratzeko, teknikari asko autonomoak dira, kultur sustatzaile eta aretook zuzeneko antolaketa eta kudeaketatik bizi gara... Eta jarduna guztiz etetea, sarrera guztiak ere eten egin zaizkigu, jakina. Horregaitik, guztiok izan dugun galera hau gerora zelanbait orekatzeko asmotan edo, antolatzaile eta sortzaile gehienok asmo bera daukagu, orain egin ezin izan ditugunak geroago egitea. Noski, horrek ekitaldien pilaketa bat ekarri dezake, eta pilaketa horrek asistentzia baxuagoa izateko arriskua. Kulturaren kontsumoari dagokionez, itxialdi honetan

alde bietarako tendentziak gartu daitezkeela uste dut: etxean pantailari begira horren txarto egoten ez dela uste duena, eta beraz, zuzeneko ekitaldien falta igarriko ez duena; edo etxetik irten ezinda egotea ahalik eta kulturarik gehien xurgatu gura dutenak. Hau da, zuzenekoek duten zera berezi horren hutsunea sentitu dutenak, antolatutako guztia irrikaz hartuko dutenak, hain zuzen ere.

**Epe luzera, eta orokorrean, kulturgintzari zelan eragingo diola uste duzu?**

Inongo neurririk hartu aurretik ere, jada hasita ginen beheraka-

da igartzen. Jendea geroago eta gehiago etxean gelditzen zela ematen zuen. Eskolak itxitakoan eta ekitaldiak bertan behera geratzerakoan, taberna eta jatetxea ere ixtea erabaki genuen. Biharamunean etorri zen, hain justu, gobernuaren agindua. Jaso dugun kolpea ez da makala izan. Guk geuk erreserba asko galdu ditugu. Eskaera ugari genituen eginda, ekitaldi eta bazkari asko aurreikusita. Eta, jakina, ez dakigu noiz eta zein baldintzatan itzuliko garen jardunera, ezta jendearen erantzuna zein izango den ere, ohiturak aldatuko ote diren...

**Kultur eragile edo programatzaile arloan ez ezik, ostalaritzan ere eragin dio Plateruenari egoera honek. Zelan eragina izan du?**

Taberna eta jatetxea gobernuaren erabakiz itxi behar izan genituen, eta kultur eskaintza ere eten behar izan genuen. Alde horretatik, badakigu enpresei dagozkien laguntzak izango ditugula, eskatuz gero. Ez dakiguna da laguntza horiek nondik etorriko diren eta zenbatekoak izango diren.

Hala ere, kulturari dagokionez, laguntza bereziak izango ditugun ez daukat horren argi. Musika Bulegoa Elkarte laneari da beste herrialde batzuetako musika elkarteekin batera, musi-

“**Antolatzaile eta sortzaile gehienok asmo bera dugu: orain egiten ez direnak geroago egitea**”

ka industrian gabiltzan sektore guztiok erraztasunak izan ditugun egoera honetan aurre egiteko. Ea presio apur bat egin eta kulturari merezi duen aitortza egiten zaion erakunde aldetik. **Badakizue erakunde aldetik babesik edo neurri berezirik jasoko duzuen?**

Gatx da hori jakitea, baina badut horren beldurra, bai. Denok dugu susmoa krisi ekonomikoko potolo bat etorriko dela ondoren, eta horrelakoetan gertatzen den lez, oinarri-oinarrizko beharrianak lehenesteko joera izaten dugu; beraz, posible da gure sektorea bereziki kaltetua izatea. Dena dela, baikor izan guran, pentsatu gura dut jendeak baloratuko dituela konfinamendu sasoian jaso eta kontsumitu dituen kultur lanak: liburuak; streaming bidezko kontzertu, antzezlan eta dantzak; filmeak... Lehen aipatu dudana aitortza hori emateaz gainera, jendeak kultura kontsumitzen jarraitzea itxaroten dut.

**DIBA**  
K O O P E R A T I B A  
Durangaldeko Baserritarren Elkarte  
Muruetan, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

**Seguros Bilbao** RUEDA BILBAO ASEGURUAK  
Jabier Rueda  
Landako etorbidea, 1 DURANGO  
ORDUTEGI BERRIA: Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 15:30era  
Zenbaki hauetan emango diogu lehentasuna bezeroari: 946 20 27 10 / 688 86 11 37  
Egunero eskainiko dizugu gure arreta ondorengo helbidean: [jrueda@segurosbilbao.com](mailto:jrueda@segurosbilbao.com)

# “Balkoietako ekimenak gure giza-batasun momentua dira; kalera 'irteten' dugu kalea bera zapaldu beharrik barik”

Besteen aurpegiak ikustea, emozioak partekatzea... Komunitate izaera konfinamenduari aurre egiteko tresna baliagarri ikusten du Iban Onandia psikologoak



**Iban Onandia Hinchado**  
Psikologo eta  
neuropsikologoa

etab.), baita afektiboak bete ahal izateko ere.

**Ez dakigu konfinamendua noiz amaituko den: ezjakintasun horren aurrean, zer jarrera da komenigarriagoa: edalontzia, badaezpada, erdi hutsik ikustea ala beti erdi beteta?**

Ez batera ez bestera: edalontzia ahalik eta objektiboen ikustea. Ezin diogu konfinamendu honi iraungitze-data ipini. Hortaz, ez diogu geure buruari tranparik egin behar, ezingo dugulako. Egu-

“**Aprobetxatu momentu hau erlazioak eta komunikazioa hobetzeko: elkarregaz gauzak eginez...**”

## ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

**Ez gaude ohituta lau hormaren artean luzaroan konfinatuta egotera. 24 orduko nahitaezko elkarbizitza erronka bat izan daiteke familientzat giza harremanen ikuspuntutik. Lotura emozionalak indartzeko balio dezake, baina tentsio uneen eta eztabaiden iturburu ere bihurtu daiteke. Zornotzako Psikología Amorebieta-ko Iban Onandia Hinchado psikologoak egoera horiei modurik egokienean aurre egiteko gakoak eskaini ditu.**

**Internet bidezko kontsultekin zabilzate egunotan. Pertsonekin aurreko tratua ez izateak zelan baldintzatzen du zuen lana?**

Ohiz kanpoko egoera da eta ziurgabetasun handia nabari da. Mundu guztia ez dago prest mota honetako terapiak jasotzeko, edo haien egoera pertsonalak ez die uzten. Umeen kasuan, oso zaila da kontsulta psikologikoak internetetik izatea. Honi aurre egiteko, informazioa eta segurtasuna ematen ahalegintzen gara, ikusi dezaten internet bidezko saioek ez dutela ia eraginik harreman terapeutikoan.

**Egunerokotasuna giza harremanetan dauden sakoneko arazoak ezkatutze-**

**ko heldulekua izan daiteke. Orain, helduleku hori barik, zelan aurre egin dakioke egoerari?**

Ahal den neurrian, errutina bat ipintzea gomendagarria da. Etxe barruko ohiko ordutegi eta ohiturak ahal diren neurrian errespetatzea, normaltasun bat emateko: ohera joateko ordua, esnatzekoa, jatorduena...

**Bikoteen kasuan, zelan eragin dezake konfinamenduak?**

Kasu hauetan, bikotearen egoeraren arabera da. Bikotearen erlazioa momentu onean ez badago, tentsio uneak azaleratu egin daitzke, baina bikote sendoa bada ere, horrek ez du esan gura konfinamenduak tentsiorik sortuko ez duenik. Orokorrean, egoera honetan espazio berean elkarregaz denbora asko pasatuko dutenez, denbora hori gestionatzeko modu desberdinak bilatzea da gakoa. Komunikazioa indartzea ezinbestekoa da.

**Egoera honek umeei gehiago eragiten die nagusiei baino? Gaztetxoen kasuan, zer jarrera nabaritu duzue?**

Jakina, zenbat eta gazteago, orduan eta gaitasun gutxiago dute gertatzen ari dena ulertzeko eta barnerratzeko. Eta ez da erraza umeei egoera hau azaltzea. Gaz-

tetxoen artean, ostera, justu kontrako fenomeno gertatzen da kasu batzuetan: jainkoak balira lez portatzen dira, beharbada badakitelako birusak gutxiago eragiten diela gazteei. Eta horrela, legea eta salbuespen egoera beraiei

“**Errutina bat ipintzea gomendagarria da, etxeko ohiko ordutegiak errespetatzea**”

zuzenduta egongo ez balira lez jokatzen dute: festak eginda, kalera irtenda.... Dena dela, logikoa da kalera ez irtetea gatzagoa izatea eurentzat, beharrian handiagoa dutelako sozializatzeko. Baina denek sufritzen dute ziurgabetasun hori, bakoitzak bere modura.

**Eta koarentenak euren bizitzako egoera emozional delikatu batean harrapatu dituen gaztetxoen kasuan, gurasoek zelan kudeatu beharko lukete egoera?**

Honek krisi alde bat dauka, zalan-tzarik barik, baina aukera aparta ere izan daiteke beste arlo batzuetan, komunikazioan esaterako. Sufritzen edo bereziki sentibera dauden nerabeekin komunikatzeko joera erraztu dezakegu. Aprobetxatu momentu hau erlazioak hobetzeko, komunikazioa... elkarregaz gauzak eginez, bestearenganako gure jakin-mina eta afektua kanporatuz...

**Familiei buruz gabiltza, baina bada bakarrik bizi den jendea ere. Zer gomendio duzue eurentzat?**

Kasu hauetan, ezinbestekoa da besteekin komunikatuta mantentzea, bai albisteen bitartez munduagaz eta egunerokotasunagaz konektatuta mantentzeko, baita sozialki ditugun beharrianak asetu ahal izateko ere. Denok dugu senideren bat edo, gutxienez, afektiboki hurbil sentitzen dugun norbait. Besteekin konektatuta egotea ezinbestekoa da, oinarritzko premia baita, gizaki legez behar dugulako. Horregaitik sortu dira edonon boluntario sareak, ez bakarrik oinarritzko beharrian fisikoak betetzeko (erosketak egin ahal izateko, kaltebera dauden pertsonak arriskuan ez ipintzeko,

nerokotasuna bizi, desiratzen ditugun gauzak egin, aprobetxatu aspaldidanik egin gura genituen gauzak egiteko... eta, horren guztia gainera, gozatu normalean denbora ezagaitik hainbeste ikusi ezin ditugun pertsonekin: gure senideekin. Bihar, biharkoak.

**Balkoietako ekimenei (txaloak, musika eta bestelako hamaika ekimen) zer deritzete? Komunitate izaera horrek laguntzen du egoerari aurre egiten?**

Komunitate izaera horrek laguntzen du egoerari aurre egiten, dudarik barik! Leiho edo balkoietara irteterakoan, besteen aurpegi begiratzen diegu, euren emozioak nabarmentzen dituztelako. Behar dugu besteekin erreprezentatuta sentitzea, gure emozioak besteengan balidatzea, eurek ere egoera horretan sentipen beretsuak dituztela. Balkoietako ekimenak gure giza-batasun momentua dira. Kalera “irteten” dugu, kalea bera zapaldu beharrik barik. Horrelako ekimenei, musikarien erakustaldiek streamingean, etab., gizaki garelako erakusten dute, eta oso une politak dira. Une latzetan egiten diren ekimen eta fenomeno hauek gure giza zentzuagaz berriro bateratzera eramaten gaituzte.



# LAGUNTZA SAREAK DURANGALDEAN BEHARRIZANA DUTENENTZAT



## ABADIÑO

Abadiñoako gazteen boluntario sarea:

**655 712 433** eta **662 586 190**

10:00etatik 14:00etara hartuko dituzte eskariak

Boluntario sarean izena emateko:

**685 709 347**

Abadiñoako Udalaren laguntza sarearen telefono zenbakiak:

**94 466 94 30** eta **688 679 414**

## ATXONDO

Boluntario aritu gura dutenek izena emateko:

**608 321 901** eta **685 713 187**

## BERRIZ

Oinarrizko erosketak egiteko zailtasunak dituztenentzako telefono zenbakia: **685 752 311**

**PSIKOLOGIA-LAGUNTZA telefonoz** (10:00 - 12:00 / 17:00 - 19:00)

**636 189 449** (nerabeak, helduak eta adinekoak)

**645 732 388** (bikotekideak)

**617 319 714** (haurrak eta adinekoak)

## DURANGO

Boluntario taldeak auzoka antolatu dituzte:

**638 102 424**

[durangoauzolana@gmail.com](mailto:durangoauzolana@gmail.com)

## ELORRIO

Laguntza behar duten pertsonek Elorrioko Udaltzainen bulegora edo **946 820 218** telefono zenbakira deitu, 12:00ak baino lehen

## IURRETA

Laguntza behar duten herritarrentzako telefono zenbakiak:

**ASTELEHENETIK - BARIKURA**

10:00 - 14:00: **679 237 129** / **644 306 355**

16:00 - 20:00: **617 144 737** / **618 683 087**

**ZAPATU-DOMEKETAN**

10:00 - 14:00: **679 237 129** / **644 306 355**

Herritarren sarean boluntario izateko: **666 101 373**

## MAÑARIA

Beharizana dutenentzako telefono zenbakiak:

**94 681 89 98** / **654 653 176**

## OTXANDIO

Otxandioko elkartasun sarearen telefono zenbakia beharizana dutenentzatzat zein boluntario izan gura dutenentzatzat: **648 023 531**

## ZALDIBAR

Zaldibarko gazteen telefono zenbakia:

**660 341 642**

## ZORNOTZA

Zornotzako Udalaren eta Gurutze Gorriaren sarea:

Boluntario izateko: [voluntariadobizkaia@cuzroja.es](mailto:voluntariadobizkaia@cuzroja.es) edo Herritarren Arreta Zerbitzuaren (HAZ) bidez

Zornotzako gazte taldearen laguntza sarea:

[elkartasuna.zornotza@gmail.com](mailto:elkartasuna.zornotza@gmail.com)

**641 873 166**

**Botikak**

<b>BARIKUA, 3</b> - 09:00-09:00 <b>UNAMUNZAGA</b> Muruetatorre 8 - <b>DURANGO</b>
<b>RUIZ GOLVANO, JUAN</b> El Alto-Bide Zahar 14 - <b>ZORNOTZA</b> <b>09:00-22:00</b>
<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbite poligonoa 4 - <b>ABADIÑO</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>ZAPATUA, 4</b> - 09:00-09:00 <b>CAMPILLO, RICARDO</b> Montevideo 24 - <b>DURANGO</b>
<b>RUIZ GOLVANO, JUAN</b> El Alto-Bide Zahar 14 - <b>ZORNOTZA</b> <b>09:00-13:30</b>
<b>UNAMUNZAGA</b> Muruetatorre 8 - <b>DURANGO</b>
<b>NAVARRO, MARIA JESUS</b> Artekale 6 - <b>DURANGO</b>
<b>BALENCIAGA</b> Ezkurdi plaza 8 - <b>DURANGO</b>
<b>BAZAN, VALENTIN</b> Uribarri 5 - <b>DURANGO</b>
<b>DE DIEGO</b> Intxaurren 22 - <b>DURANGO</b>
<b>IRIGOIEN</b> Bixente Kapanaga 3 - <b>IURRETA</b>
<b>EGUREN, ISABEL</b> Trañabarren 15 - <b>ABADIÑO</b>
<b>JAIO-ABENDIBAR</b> Erreka 6 - <b>ELORRIO</b>
<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>MELERO, ROSA MARI</b> San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>GUTIERREZ, IBAN</b> Txiki Otaegi 3 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>GOIRIA</b> Sabino Arana 6 - <b>ZORNOTZA</b> <b>09:00-22:00</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbite poligonoa 4 - <b>ABADIÑO</b>
<b>DOMEKA, 5</b> - 09:00-09:00 <b>NAVARRO, MARIA JESUS</b> Artekale 6 - <b>DURANGO</b>

<b>RUIZ GOLVANO, JUAN</b> El Alto-Bide Zahar 14 - <b>ZORNOTZA</b> <b>09:00-22:00</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>ASTELEHENA, 6</b> - 09:00-09:00 <b>ETXEBARRIA, FELISA</b> Montevideo 2 - <b>DURANGO</b>
<b>GOIRIA</b> Sabino Arana 6 - <b>ZORNOTZA</b> <b>09:00-22:00</b>
<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbite poligonoa 4 - <b>ABADIÑO</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>MARTITZENA, 7</b> - 09:00-09:00 <b>BAZAN, VALENTIN</b> Uribarri 5 - <b>DURANGO</b>
<b>GOIRIA</b> Sabino Arana 6 - <b>ZORNOTZA</b> <b>09:00-22:00</b>
<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbite poligonoa 4 - <b>ABADIÑO</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>EGUAZTENA, 8</b> 09:00-09:00 <b>DE DIEGO</b> Intxaurren 22 - <b>DURANGO</b>
<b>GOIRIA</b> Sabino Arana 6 - <b>ZORNOTZA</b> <b>09:00-22:00</b>
<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbite poligonoa 4 - <b>ABADIÑO</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>EGUENA, 9</b> - 09:00-09:00 <b>SARRIA, ITZIAR</b> Sasikoa 17 - <b>DURANGO</b>
<b>GOIRIA</b> Sabino Arana 6 - <b>ZORNOTZA</b> <b>09:00-22:00</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>


**Zorion Agurrak**


**GOZATU**  
**GOZOTEGI-OKINDEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozotegia



Zorionak, **Maddi!** Jarraitu beti bezain alai eta distiratsu. Musu handi bat guztion partez!



Gaur **Aitzol** Lasuen Birtxinagak 12 urte egingo ditu. Zorionak eta mosu potolo bat familiaren eta lagunaren partez.



Martxoaren 16an **Uzuri** Cebrian Iriondok 3 urte egin zituen. Zorionak, txikitxu! Patxituek!




**Iparrek** 9 urte egingo dauz apirilaren 6an eta **Paulek** 6 apirilaren 9an. Zorionak eta mosu handi bat familia guztiaren partez! Txapeldun batzuk zarie!



Zorionak, **Paulxo!** Ahal dan hoberen ospatu zure 2. urteguna. Hau dana amaitzen danienean elkartuko gara danok batera ospatzeko. Muxu eta besarkada erraldoi bat aiti-amama, Irati, Elene eta osaba-izekoen partez.

**Eskelak**

**Juan**  
**Jaio Etxeita**



Martxoak 28an Iurretan hil zen 84 urte zituela

**Ez zaitugu inoiz ahaztuko**

*Etxekoak*

**Postrechallenge**

Asier Aspuru abadiñarraren 'Koronapostreak' irabazi du **ANBOTO**ren postre lehiaketa. Aspuren postreak 46 boto jaso zituen. Zorionak!

**Eguraldia**

ZAPATUA 🌧️ 21° / 4°	☀️
DOMEKA 🌧️ 19° / 9°	☁️
ASTELEHENA 🌧️ 18° / 11°	☀️
MARTITZENA 🌧️ 21° / 10°	☀️
EGUAZTENA 🌧️ 19° / 12°	☁️
EGUENA 🌧️ 20° / 12°	☁️

**Hemen**  
**eta**  
**online**

iragarki  
laburrak  
.eus





## “Amazon salmenta itzelak egiten ari da; bitartean, guk itxita dugu denda”

Hitz liburu-dendako Gaizka Olabarria oso kritikoa da Amazonegaz; liburu-dendak dekretu bidez itxi dituzten arren, salmenta denda erraldoia liburuak saltzen dabil etxerik etxe

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

**Sare sozialetan Amazoni buruzko kezak eta kezak plazaratu dituzu. Besteak beste, liburu saltzaile zarenton lehiakidea da. Zelan eragiten dizue Amazonek konfinamendu sasoiak, eta zelan eragin dizue konfinamenduaren aurretik?**

Herri eta hirietako merkataritza txiki askok, eta bereziki liburu-saltzaileok, aspalditik dakigu Amazon mehatxua dela gure bizi-iraupe nerako. Arazoa kontsumitzeko modua da, Kapitalismoak eraman gaitu era horretan kontsumitzera. Ez daukagu pazientziarik, bizkor-bizkor gura dugu dena. Gaur egun, zeozer behar dugunean ez dugu kalera irteten, ez gara dendara joaten, ez diogu saltzaileari aholkua eskatzen... hori denbora galtzea iruditzen zaigu. Penagarria da, baina horrela da. Geroago eta gizarte indibidualistagoa eta lehiakorragoa bihurtzen ari gara. Komertzio txikietako saltzaileon hautua beze-

roenganako gertutasuna da, giza-harremana. Galderaren bigarren parteari erantzunez, koronabirusaren krisi honetan gertatzen dabilena lotsagarria iruditzen zait. Amazon salmenta itzelak egiten ari da; bitartean, guk itxita dugu denda. Debekatuta dugu zabaltzea, dekretuz. Hori bai, autonomoen kuota puntualki pasatu digute, batere diru sarrerarik ez dugula eta gastu pila bat dugula kontuan izan barik. Gainera, gure zergak bertan ordaintzen ditugu eta momentu latz honetan gure osasun-zerbitzuetara doaz. Amazonek, osterara, ez du bertan tributitzen, ez dio gure gizarteari laguntzen.

**Dendari, ostalari eta merkataritxikiek lantegi handiek baino hiru aste lehenago zarratu zenuten negozioa. Zein interpretazio egiten duzu egoeraz?**

Ulertu, onartu eta babestu egiten dut konfinamendua. Beharrezkoa da koronabirusari aurre egiteko.

Baina konfinamendua osoa izan behar da, erabatekoa. Orain ere geu gara kaltetuenak: komertzio txikiak, dendak, tabernak, ostalaritza... eta ezin ahaztu sortzaileak: antzerki konpainiak, bertsolariak, musika taldeak... eta abar. Azken finean, janaria eta lehen sektoreko zerbitzuak lantzen ez ditugun autonomoak. Zuk diozun moduan, lantegiek baino 15 egun gehiago daramatzagu konfinamenduan, inolako diru-sarrerarik barik.

**Zelan bizi duzue egoera hau etxean?** Umeengaitik asko sufritzen dut. Hiru seme-alaba ditugu eta asko entretentzen dira elkarregaz jolasten, ipuin eta jolasen artean. Baina agintariek ez dituzte umeen beharrezko kontuan izan konfinamendua ezartzerakoan. Nire us-tez, egunean behin behintzat, eta neurri zorrotzak hartuta, haurrak kalera irteteko baimena beharrezkoa da euren osasun mental eta fisikorako. Italian jada heldu da.

## Covid-19 Osasun Larrialdia

Euskadiko tokiko saltokiak, funtsezko jarduerak irekita jarraitzen dute.

**Mila esker!**

Guztiei egunero pertsiana igotzeagatik.

**Mila esker!**

Hurbiltasunez eta profesionaltasunez arreta emateagatik.

**Mila esker!**

Zuen lana ezinbestekoa da.

**Mila esker!**

Euskadiko tokiko saltokietako pertsonei.

**Mila esker!**

Bertan egoteagatik zuen beharra daukagunean.

Tokiko erosketak, egin kontsumo arduratsua, zero xahutze.

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA  
ETA KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,  
COMERCIO Y CONSUMO

#EuskadikoSaltokiak

#etxetikhurbil



# PLAZAN BAZAN

## Bi KoloRe


Bi sudokuak kolore bana dute oinarri eta osatu egin behar dituzu. Lehendabizikoan, URDINA hitza osatzen duten hizkiak erabili behar dituzu (U, R, D, I, N eta A). Bigarrengoan, berriz, BELTZA hitza osatzen duten hizkiak erabiliko dituzu.

Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



U				NR
	A			
I				D
	R	N		
		R	U	
NA		D		I

	T	L	E	Z	A
			T		
T		E			Z
Z			L		E
		T	B		
E	B	Z	A		



## Bi Koizketa


Pertsonaiak albo batera utzita, badira gutxienez 9 elementu bi irudietan ageri direnak. Ikusten al dituzu?



[www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus)

# 5 X 5 X 5

Erreparatu ongi, berdinak diruditen bi irudi hauei. Ezkerretik eskuinera, bost elementu agertu dira, eta beste bost desagertu. Halaber, bost elementu aldatu dira. Aurki itzazu.



## Itzala

Zein da Maripurtzilen itzal zuzena?

## Engainariak

Zazpi zati hauetatik hiru ezkerreko iruditik hartuta daude eta gainerako laurak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.

# “Ez dut ulertzen gizakiok zergaitik ez duzuen lana eteten eta elkar zaintzen”

Konfinamendua komikietako pertsonaia baten ikuspegitik aztertu du ANBOTOK

IURRETA • EKAITZ HERRERA

**Eñaut Airtzaguen** marrazkilari irretarraren laguna da **Otso**. Badira sei bat urte Airtzaguenak bere burua komikietako pertsonaia bihurtu eta 'Irribarrez' izeneko proiektuari ekin zionetik. Besteak beste, izen bereko sare sozialetan egin ohi ditu argitalpenak. Azkenaldian, **Otso** pertsonaiagaz lagunduta ageri da Airtzaguen. Irailean opari lez jasotako peluxeko otsoari bizia eman dio komikietan. Otsok erantzun die ANBOTOn galderei.

**Elkarrizketagaz hasi aurretik, doluminak. Orainsu Albert Uderzo hil da, Asterixen eta Obelixen irudigilea. Zer moduz daude galiarrak?**

Idefixegaz berba egin nuen lehengoan, Skype bidez. Gure ama zenaren lehengusu txikia da. Gogorra izan dela dio, marrazkilari erreferente handi bat joan zaigu, baina Asterixegaz eta Obelixegaz beste abentura batzuk bizitzeko gogoz jarraitzen dute oraindino galiarrek. Obelixentzat izan da gogorrena, sentikorrena bera da-eta. Idefix eta Asterix bera zaintzen daude. Irtengo dute aurrera!

**Egun hauek "ez dira betiko garai onenak". Gu gizaki hutsak gara, baina zelan bizi du konfinamendua otso batek?**

Gogorra da etxetik ezin irtetea. Nik, gainera, badakit komuna erabiltzen, eta, beraz, ezin aitzakia hori erabili. #ZaldaiMendiErroka2020 egiten hasita nengoen Eñautegaz batera eta dagoeneko eginda ditut bospasei tontor. Mendia maite dugunoi go-

gorra egiten zaigu lau hormaren artean bizitzea, baina Eñautek bere sormena kutsatu dit eta hemen ari naiz orain proiektu berriak sortzen.

**Larritzen zaitu egoerak? Zerk kentzen dizu loa?**

Ez dut lo egiteko arazorik izaten, ez bada Azeri gainera erortzen zaigula. Berak ohe gaineko komikien alboan lo egiten du. Hala ere, kezagarria da egoera; ez dut ulertzen gizakiok zergaitik ez

batzuetan tristetu egiten da eta bera zaintzea da nire lana, batez ere, eta irribarrea itzularaztea. Oso ondo konpontzen gara elkarregaz.

**Hartzen al ditu babes neurriak Eñautek?**

Egun hauetan ez du etxetik ia irten ere egin, eta zozertara irten behar badu, garbitzen ditu eskuak, bai. Dena dela, badakizu, marrazkilari baten eskuak sekula ere ez dira garbi-garbi egoten. Gustatzen zaizkit margo arrasto horiek! Gora sormena eta koloreak!

**Zer egiten duzue etxean aspertuta zaudetenean?**

Sare sozialen bitartez, Dimako Dimesten herri mugimenduko lagunei jarraitzen diegu. Konfinamenduko egun hauetan, proposamen bat kaleratzen dute egunero, 10:00etan, eta asperetzen garenean erroka horiek betetzen ahalegintzen gara. Errezeak, dantzak, jolasak,... erroka ederrak dira gero!

**Zure argitalpen propioak egin dituzula ikusi dugu egunotan: "Otsoren denborapasa koaderno". Zer eskaintzen duzu bertan?**

Inguruko familietako haurrentzat zerbait sortzea bururatu zitzaidan. Horrela sortu zen "Otsoren denborapasa koaderno". Oso harrera ona izan zuen eta nire marrazkiak koloreztatzen zebiltzan umeen lanen argazkiak ere jaso nituen. Ilusio itzela egin zidan eta koaderno gehiago sortzen hasi nintzen.

**Zerbait esan gura zenieke ANBOTOn irakurleei?**

“


**Nire lana Eñaut zaintzea eta irribarrea itzularaztea da. Oso ondo konpontzen gara elkarregaz”**

—

duzuen lana eteten eta elkar zaintzen, bizitzeko behar-beharrezkoa dena soilik egiten. Animalia guztiok poz-pezik eta lasai bizi gara; zuek ez, ez dut ulertzen.

**Egun hauetan orduak eta orduak Eñaut zure lagunagaz pasatzen dituzu. Zelakoa da zuen elkarbizitza?**

Eñauten gurasoekin bizi gara eta horrek erraztu egiten ditu gauzak. Eñautek afariren bat prestatzen du tarteka, baina ezer gutxi gehiago. Bestela, egunean zehar lanean ari da normal-normal, marraztu eta marraztu. Kontua da ordu luzeetan egoten dela logela barruan marrazten, eta mila buelta ematen dizkiola buruari. Batekoagatik edo bestekoagatik,



Otso eta Eñaut 'Irribarrez' tira komikoetako pertsonaiak

“

**Nire marrazkiak koloreztatutuzten umeen lanen argazkiak jaso ditut”**

—

Denei besarkada estu bana bidali gura nieke. Irtengo dugu honetatik ere! Baina, bitartean, zuen etxeetan ere badituzte lagun asko eta asko: hartzak, elefanteak, katuak... Eurak ere desiratzen daude zuek zaindu eta zuekin jolasteko. Badakizue, beraz: sormena, umorea eta jolasa, horixe da bidea!



**Egiguzu nahi duzun eskaera telefonoz eta zu zatozenerako prest izango dugu, Durangon zein Zornotzan. Ez duzu ilaran itxaron beharko.**

ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658

SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722